

Usurbilgo Udala



2016KO MARTXOAREN 22AN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Xabier Arregi Iparragirre

Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaka
Xuban Zubiria Elexpe
Jone Urdampilleta Urdampilleta
Iñaki Ugarte Agirre
Irene Garcia Palacios
Miren Josune Estella Arranz
Jose Mari Iribar Zapirain
Josune Urkola Larrarte
Mirari Azurmendi Sorazu
Andoni Atxega San Sebastian
Carlos Perez Fraisoli
Fermin Orue-Echevarria Iturri

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel

Kontu-hartzailea: Karmele Lizaso Ubera

Arratsaldeko 18:05etan batzarrari hasiera eman zaio.


Usurbilen, 2016ko martxoaren 22an, arratsaldeko 18:05etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ezohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Xabier Arregi Iparragirre izan da Batzarburua.

1.- 2016KO URTARRILAREN 26KO OHIKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.

Batzarkideek, 2016ko urtarrilaren 26ko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2016KO OTSAILAREN 15ETIK MARTXOAREN 11RA (2016/0116-2016/0267)



Usurbilgo Udala



Alkatetzak 2016ko otsailaren 15etik martxoaren 11ra bitartean (2016/0116– 2016/0267) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- UDALBILTZAN UDAL ORDEZKARITZA ALDATZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak azaldu du lehen Udalbiltzan udal ordezkaria alkatea bera izatea eta ordezkoa Alaitz izatea erabaki bazen ere, orain egokiagoa ikusten dutela dio ordezkaria Alaitz izatea eta ordezkoa alkatea.

Batzarkideek, alkatearen proposamena aztertu dute eta hau gehiengoz onartu dute, honako testuaren arabera:

“ID.02/2015-0261

Udalbatza Plenoak, 2015eko ekainaren 30eko bilkuran onartu zuen udalaren ordezkaritza beste organo eta erakundeetan. Horien artean, Udalbiltzan udalaren ordezkaria Xabier Arregi eta honen ordezkoa Alaitz Aizpurua izatea erabaki zen.

Orain, ordea, egokiagoa ikusten da ordezkaria Alaitz Aizpurua izatea eta honen ordezkoa Xabier Arregi. Beraz, Udalbatza plenoak, gehiengoz, honako erabakia hartu du:

E R A B A K I A

Erakundea	Ordezkaria	Ordezkoa
UDALBILTZA	Alaitz Aizpurua	Xabier Arregi


Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz onartua izan da.

4.- UDALAK HILERRI BERRIAN ESKAINITAKO HILOBIEN GAINEKO ESKUBIDEAK ESLEITZEA (8. LOTEA).



Usurbilgo Udala



Jone Urdanpilletak irizpenari buruzko azalpenak eman ditu. Gai hau batzordetik aho batez onartuta datorrela esan du eta gogoratuko duten bezala, 2015eko irailaren 29an egindako bilkuran hilerri berriko hilobien gaineko eskubideak (8. lotea) esleitzeko prozedura abian jarri zen, hain justu ere 9 hilobiko lotea. Hiru hilobiko eskaera bat egon dela esan du eta eskatzaileek aurkeztu beharreko dokumentazioa aurkeztu dutela.

Jarraian, gaur plenoan onartuko diren puntuak zerrendatu ditu. Hain zuzen ere, Altzifrea kalea, 12 ezkerrean hiru hilobi esleitzea, hitzarmena administratiboaren eredia onartzea eta hau sinatzeko alkatea ahalmentzea, eta ezarritako behin behineko fidantza bueltatzea.

Batzarkideek, Zerbitzuak Batzorde Informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio testuak:

“Espediente zkia.: HZ.06/2015-0365

Aurrekariak

Udalbatza Plenoak 2015eko irailaren 29an egindako ohiko bilkuran, bestek beste, hilerri berriko hilobien gaineko eskubideak (8. lotea) emakida administratiboaren bidez esleitzeko betebeharreko Baldintza Juridiko Ekonomiko eta Administratibo Bereziak onartzea, lizitaziorako espedientea irekitzea eta eskabideak aurkezteko deialdia egitea erabaki zuen.

Deialdiaren iragarkia 2015eko urriaren 16eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Euskal prentsan argitaratu zen hogeita hamar egun naturaleko epea eman zelarik eskabideak aurkezteko.


Deialdi-epean, honako eskabideak aurkeztu ziren:

Erreg.	Data	Izen abizenak	Hilobi kopurua
3197	2015.10.22	Vitoria Aranguren ahizpak (Miren Arantxa, Angela Maria eta Maria Iciar)	3

Eskatzaile denak lizitazioan parte hartzeko beharrezkoa den dokumentazio guztia aurkeztu dute, beraz, ez da inor baztertu.

Bestetik, 8. Lote honetan hauek dira emakidan eskaintzen diren hilobiak:

- Altzifrea kalea, 5 - esk. 3 (nitxo 1)
- Altzifrea kalea, 5 - ezk. 2 (nitxo 1)
- Altzifrea kalea, 5 - ezk. 3 (nitxo 1)
- Altzifrea kalea, 12 - ezk. 1 (nitxo 1)
- Altzifrea kalea, 12 - ezk. 2 (nitxo 1)
- Altzifrea kalea, 12 - ezk. 3 (nitxo 1)



Usurbilgo Udala



- Altzifrea kalea, 13 - ezk. 1 (nitxo 1)
- Altzifrea kalea, 13 - ezk. 2 (nitxo 1)
- Altzifrea kalea, 13 - ezk. 3 (nitxo 1)

Esleipenak panteoien kokapen ordena eta sarrera ordena jarraituz egingo dira.

Araudi aplikagarria


- Hilerrri Berriaren Erregimen eta Funtzionamendua arautzen duen Arautegi Nagusia.
- Hilerrri berriko hilobien gaineko eskubideak esleitzeko bete beharreko Baldintza Juridiko Ekonomiko eta Administratibo Bereziak. Jardunbide hau arautuko dutenak.
- Azaroaren 3ko 33/2003 Patrimonioaren Legea (93. artikulua eta jarraipenekoak).
- Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzazko Errege Dekretua.
- Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea eta Erregimen Lokalari dagokionez, indarreko ebazpenen Testu Bateratua onesten duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilea, Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginaren aurka ez doan heinean.
- 1.955eko ekainaren 17ko Toki Korporazioetako Zerbitzuen Erregelamenduaren 114tik 137rainoko atalak, Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginaren aurka ez doan heinean.
- Izaera osagarritz, Zuzenbide Administratiboko gainontzeko arauak eta, hauek ezean, *Zuzenbide Pribatukoak izango dira indarrekoak.*
- Ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua, Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Araudia.

Beraz, guzti hori ikusirik, Zerbitzuak eta Obrak Batzordeak, 2016eko martxoaren 10ean egindako bileran, aho batez, Jone Urdanpilleta, Joxe Mari Arregi, Mirari Azurmendi eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko botoekin, Udaltzari egindako irizpena kontutan hartuta, Udaltzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENENGO: Udalak hilerrri berrian eskainitako hilobien gaineko eskubideak azalean jasotako eran esleitzea, hau da:

- Altzifrea kalea, 12 ezkerrean hiru hilobi MIREN ARANTXA, ANGELA MARIA eta MARIA ICIAR VITORIA ARANGUREN ahizpei.



Usurbilgo Udala



BIGARREN: Esleipena gauzatzeko jarraian idatzitako Hitzarmen Administrazioaren eredia onartzea eta esleipendunarekin sinatu beharreko Hitzarmena prestatzeko agintzea.

HIRUGARREN: Alkateari, Udalaren izenean Hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.

LAUGARREN: Hitzarmena sinatu hala, esleipendunak ezarritako behin behineko fidantza bueltatzea.

BOSTGARREN: Erabaki honen berri esleipendunari, udal lantaldeko arduradunari, lurperatzaileari eta kontuhartzaitzari ematea.

Lehendabizikoari, eguna eta ordua jartzea Hitzarmena sinatzera etor dadin.”

Bozketa egin denean, honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartua izan da.

5.- PSE-EE UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA.

Alkateak adierazi du mozio hau aurreko plenoaren aurretik landu zela Antolakuntza Batzordean, baina zehaztu du pleno honetara ez datorrela batzordeak diktaminatuta, beraz, lehendabizi puntu hau gai-zerrendan sartzea onartzen den bozkatu behar dutela esan du.

Hasteko, batzarkideek, aho batez, PSE-EE udal taldeak aurkeztu duen mozioa gai-zerrendan sartzea berretsi dute.

Fermin Orue-Echevarriak hitza hartu du eta adierazi du bere asmoa mozio hau aurreko hileko plenoan sartzea zela, baina gainontzekoei mozioaren berri eman zienean EHBilduk beste hiru puntu sartu nahi izan omen zituen. Azkenean, gaur hona ekarri den testua adostu dela adierazi du.

Jarraian, mozioaren zazpi puntuak irakurri ditu.

Jarraian, batzarkideek, energia-pobrezian dauden pertsonen energia-hornidura ez mozteko neurriak hartzeko helburuarekin aurkeztutako mozioa aho batez onartu dute, honela dio testuak:



Usurbilgo Udala



“JUSTIFIKAZIOA

Energia-pobrezia bezala definitzen da etxeko oinarrizko premiak betetzeko behar den energiaren zerbitzuak ordaindu ezin dutenen, edo diru-sarreraren zati handiegia euren etxebizitzaren energia-faktura ordaintzeko erabiltzen dutenen egoera.

Pobrezia-egoeran gero eta familia gehiago daudela ikusita, faktura horiek ordaindu ezinik dauden, argirik ez duten, etxean hotzez dauden eta edateko, euren burua eta arropa garbitzeko ura ez duten pertsonen ur, argi eta gasaren oinarrizko hornidura bermatzeko neurriak hartzeko neua da.

Pobrezia-egoera hauek ez dira kasualitatez sortu. Batetik, aberastasunaren banaketa bidegabeak gero eta sektore zabalagoak utzi ditu oinarrizko baliabiderik gabe. Bestetik, egungo eredu energetikoa sektore honetako enpresa erraldoien mesedetan antolatuta dago. Oinarrizko beharretatik etekin ekonomikoa ateratzen duten enpresei men egiten zaie, eta, horrela, laguntza publikoak enpresa horien poltsikoetan bukatzen dute.

2013ko abenduan jada, Diputatuen Kongresuan PP alderdiaren gehiengo absolutuak arazo honi irtenbidea ematea –Europako beste herrialde batzuetan dagoeneko neurriak hartzen ari dira– eragotzi zuen. Gainera, Rajoyren gobernuaren ezezkoa defendatu zuen pertsonak lan-erreforma –kanporatze merkea baimentzeaz gain, langileen errentak oro har pobretzea dakarrena– bezalako beste neurri batzuk hartzeari buruz hitz egin zuen.

Euskal Sozialistak, legealdi honetan, 10 aldiz sustatu dugu gai honen inguruko eztabaida Legebiltzarrean eta, Urkulluren gobernuaren 2015eko aurrekontuei egindako zuzenketa baten bitartez, lehen aldiz, energia-pobrezian dauden familien premiei –gaur egun ez dute helburu honetarako beste laguntzarik– aurre egiteko aurrekontu-sail bat barne hartzea lortu genuen. Horren ondorioz, urriaren 6an, Eusko Jaurlaritzak laguntza hori Euskadiko Gurutze Gorriari emandako diru-laguntza moduan gauzatu zuen, energia-pobrezia aurka borrokatzeko eta etxebizitza-arloan krisian dauden familiei laguntzeko proiektua sustatzeko. Laguntza horri esker, diru-sarrera txikiak dituzten familien etxebizitzako eta horniduretako (argia, ura edo gasa) gastuen zati bat ordaindu ahal izango da, eta premia oinarrizkoen aurre egin ahal izateko familiek eskura dituzten beste laguntza batzuen berri emateko eta familiak haietara bideratzeko erabili ahal izango da.

Sozialistek hasitako lanerako bide honek ondorioak izan ditu EAeko 2016ko aurrekontuetan, aipatutako laguntzetarako aurreko ekitaldiko diru-kopurua bikoiztu egin baita. Hala eta guztiz ere, egoera hau neguan larriagoa izaten da, energia-pobrezia gizarte-sektore ahulenen eguneroko bizitzan ondorio latzagoak dituen garaia delako. Herritarrengandik hurbilen dagoen erakundetik, ahal den neurrian, egoera horiek arintzeko behar den guztia egin behar dugu.

Hori dela eta, Udalbatzarrak honako mozioa onartu du aho batez:



Usurbilgo Udala



1.- Energia-pobrezian dauden bizikidetza-unitateak eta kolektiboak identifikatzeko adierazleak definitu ditzala eskatzen die Usurbilgo Udalak Energiaren Euskal Erakundeari eta Gizarte Politiketako Sailari, Aldundiekin eta Udalekin batera. Txosten horretan zehaztu beharko lirakeke pobrezia egoerari aurre egiteko neurriak.

2.- Pobrezia egoeran dauden udalerrri honetako familiei faktura ez ordaintzeagatik elektrizitate-, gas- eta ur-hornidura ez mozteko, edo moztu bazaie, berriro ezartzeko behar diren koordinazio-mekanismoak enpresa hornitzaileekin finka ditzan eta, behar izanez gero, hitzarmenak sina ditzan eskatzen dio Udalbatzak Udal Gobernuari.

3.- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen bitartez, 2016ko EAeko Aurrekontu Orokorren bidez ordaindutako energia-pobreziaren aurkako borroka-programa garatzen Euskadiko Gurutze Gorriarekin elkarlanean jardutea, eta laguntzen programa hau gure herritarrei helaraztea eskatzen dio Udalbatzak Udal Gobernuari.

4.- Gizarte Larrialdietarako Laguntzek erantzuten ez dieten energia-pobreziako kasuei erantzuteko aurreikusitako kontu-saila bideratzeari buruz 2015eko martxoaren 26ko Eusko Legebiltzarraren erabakia berresten du Udalbatzak.

5.- Nolanahi ere, behar horiei aurre egiteko, Eusko Jaurlaritzari eskatzen zaio programa bat garatu eta hornitu dezan, udaletako gizarte-laguntzekin koordinatuta, eta izaera erabat publikoa.

6.- Etxeko oinarrizko premiei erantzuteko nahikoa izango den energia-horniduraren eskubidea bermatuko duen energia-pobreziaren aurka Lege Proiektu bat helarazteko eta, Autonomia Erkidegoekin batera, Estatuko Aurrekontu Orokorretan jasotako urteko funts baten laguntzaz, energia-pobreziarekin amaitzeko estrategia finka dezan eskatzen dio Udalbatzak Espainiako Gobernuari.


7.- Aurreko puntuak garatu bitartean, Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari izaera sozialeko entitateekin hitzarmenak sina ditzan, eta horren bidez aholkularitza zerbitzu bat eman diezaien bai energia-pobrezia egoeran daudenei bai egoera larrian dauden herritarrei ere.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapiain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartua izan da.

6.- GALDERA-ESKAERAK.



Usurbilgo Udala



Ez da galdera edo eskaerarik egin.

Alkateak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:15etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.